



196 EREDUA AURKEZTEKO DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK

ERREGISTROEN AZALPENA

Aitortzaile bakoitzeko, bi erregistro mota desberdin sartuko dira. Horiek lehen posizioagatik bereiziko dira irizpide hauen arabera:

1. mota: Aitortzailearen erregistroa: identifikazio datuak eta aitortpenaren laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azaltzen dena.

2. mota: Aitortuen erregistroa eta baimenduaren erregistroa. 2. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azaltzen denaren arabera..

Aurkezpenaren ordena erregistro motaren araberakoa izango da. 1. motarako, erregistro bakarra egongo da, eta 2. motarako, berriz, aitortpenen sartutako aitortuak eta baimenduenak desberdinak izango dira beti.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkeraldera lerrotatuko dira oro har, eta eskuinaldetik zurienez beteak agertuko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-1 kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letra 209 ASCII balorea izango da (Hex. D1) eta «Ç» letra (zedila maiuskula) 199 ASCII balorea (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen eta ezkeraldetik zeroz beteak agertuko dira, zeinurik gabe eta trinkotu gabe.

Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, edukia eremu guztiek izango dute. Edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, eta alfabetikoak eta alfanumerikoak bete gabe utziko dira.



196 EREDUA

A. 1. motako erregistroa: AITORTZAILEEN ERREGISTROA

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
1	Numerikoa	ERREGISTRO MOTA «1» konstantea.
2-4	Numerikoa	AITORPEN EREDUA «196» konstantea.
5-8	Numerikoa	EKITALDIA Aitorpenaren zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira.
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEEN IFZ Aitortzailearen IFZ jarriko da. Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.
18-57	Alfanumerikoa	AITORTZAILEEN IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA Sozietatearen izen osoa jarriko da, anagramarik gabe. Eremu honetan inola ere ezingo da merkataritza izenik jarri
58	Alfabetikoa	EUSKARRI MOTA Gako hauetako bat jarriko da: «C»: Informazioa CD-Rean aurkezten bada. «D»: Informazioa disketean aurkezten bada. «T»: Informazioa telematikoki aurkeztuz gero.
59-107	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONA Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da: 59-67: Telefonoa: Bederatzi posizioko eremu numerikoa. 68-107: Deiturak eta izena: Jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez.

108-120

ZURIUNEAK

121-122

Alfabetikoa

AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKO AITORPENA

Salbuespenez bigarren edo ondorengo aitorpen bat aurkezten denean, honako eremu hauetako bat beteko da derrigorrez:

121. Aitorpen osagarria: «C» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia lehendik aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean aipatu gabe utzi ziren erregistroak sartzea bada.

122. Ordezko aitorpena: «S» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia ekitaldi bereko aurreko aitorpen bat baliogabetu eta erabat ordezteka bada. Ordezko aitorpenak aurreko aitorpen bat bakarrik baliogabetu dezake.

123-135

ZURIUNEAK

136-144

Numerikoa

AITORTUEN ETA BAIMENDUEN KOPURU OSOA

Aitorpenean guztira aitortuen eta baimenduen zenbat erregistro jaso diren jarri behar da (2. motako xehetasun erregistroak). Aitortu edo baimendu bat erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, zerrendaturik ageri den adina aldiz zenbatuko da. (2. motako erregistroen kopurua).

145-160

Numerikoa

ATXIKEPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA

16 posizioko eremu numerikoa

«Atxikipen oinarria» eta «Konturako sarreraren oinarria» eremuetan (aitortuen erregistroei dagozkien 169tik 180ra eta 208tik 217ra bitarteko posizioak) adierazitako zenbatekoen batura jarriko da. Aitortuen erregistro horietan N jarri bada «Atxikipen oinarriaren zeinua» eremua betetzean (2. motako erregistroaren 169 posizioa), batura horretan adierazi beharreko zenbatekoak minus zeinuaz konputatuko dira.

Eremu hau bitan banatuta dago.

145 zeinua: Eremu alfabetikoa. eremu alfabetikoa. Goian aipatu berria den batura 0 (zero) baino txikiagoa denean bete beharko da; kasu horretan N jarri behar da. Beste edozein kasutan, eremu honen edukia tarte bat izango da.

146-160 zenbatekoa: 15 posizioko eremu numerikoa. Goian aipatu den batura jarri behar da.

Zenbatekoak eurotan jarri behar dira. Zenbatekoari ez zaio jarriko inolako zeinurik (+/-), eta ez du izango hamartarren komarik.

Eremu hau bitan banatzen da:

Zenbatekoak eurotan jarri behar dira

Eremu hau bitan banatzen da:

146-158. Zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

159-160. Zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

161-175 Numerikoa

ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK

15 posizioko eremu numerikoa. «Atxikipena» eta «Konturako sarrera» eremuetan (aitortuen erregistroei dagozkien 181etik 191ra eta 218tik 226ra bitarteko posizioak) adierazitako zenbatekoen batura osoa jarri behar da.

Zenbatekoak eurotan jarri behar dira. Zenbatekoari ez zaio jarriko inolako zeinurik (+/-), eta ez du izango hamartarren komarik.

Eremu hau bitan banatzen da:

161-173. Zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

174-175. Zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

176-500

ZURIUNEAK

* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete behar dira.

* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak bete gabe utzi behar dira.

* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira bete tzen, eta ezkerraldeetik zeroz beteak agertuko

* Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldeetik hasiko dira bete tzen, eta eskuinaldeetik zuriuneak utziko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta okaletan azenturik jarri gabe.



196 EREDUA

B 2. motako erregistroa:

AITORTUAREN ERREGISTROA

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
1	Numerikoa	ERREGISTRO MOTA «2» konstantea
2-4	Numerikoa	AITORPEN EREDUA «196» konstantea.
5-8	Numerikoa	EKITALDIA 1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da.
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IFZ 1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da.
18-26	Alfanumerikoa	AITORTUAREN IFZ Aitortuak Espainian emandako IFZ badu, honela jarri behar da: Pertsona fisikoa bada, aitortuaren IFZ jarri behar da Adingabeak edo desgaituak identifikatzeko, adingabearen edo desgaituaren datuak jarriko dira, identifikazio fiskaleko zenbakia barne, baita legezko ordezkariarena ere. Aitortua pertsona juridikoa edo errentak esleitzen dituen entitatea denean (ondasun komunitatea, sozietate zibila, banatu gabeko herentzia eta abar), haren IFZ jarriko da. Identifikazio fiskaleko zenbakia aitortzen den urteko edozein momentutan titular, baimendun edo onuradun izan diren pertsona edo entitateena izango da. Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen. Azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du. Ezkerreko posizioak zeroz beteko dira
27-35	Alfanumerikoa	LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ

Aitortua adingabea edo ezgaitua bada, eremu honetan legezko ordezkariaren IFZ jarriko da (aita, ama edo tutorearena). Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.

Gainerako kasuetan, eremu honetako edukia hutsunez beteko da.

36-75 Alfamerikoa

AITORTUAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIJETATE IZENA

a) Pertsona fisikoak badira, lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa jarriko dira, ordena horretan nahitaez. Aitortua adingabea edo ezgaitua bada, eremu honetan adingabearen edo ezgaituaren deiturak eta izena jarriko dira

b) Pertsona juridikoak eta errenten esleipen erregimenera bildutako entitateak badira, haien sozietate izen osoa jarriko da, anagramarik gabe

76-93 Numerikoa

DIRU SARREREN BOLUMEN OSOA

Hemen jarri behar da urtean kontuan izandako diru sarreraren zenbateko osoa. Urteko zenbateko osoa kalkulatzeko, kontuaren hartzekoan egindako idazpenak batuko dira (abonuen batuketa)

Eremu hau bitan banatuta dago:

76-91. Diru sarreraren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira

92-93. Diru sarreraren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira

94-111 Numerikoa

DIRU-IRTEEREN BOLUMEN OSO

Hemen jarri behar da urtean kontuan izandako diru irteeraren zenbateko osoa. Urteko zenbateko osoa kalkulatzeko, kontuaren zorrean egindako idazpenak batuko dira (karguen batuketa).

Eremu hau bitan banatuta dago:

94-109. Diru irteeraren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

110-111. Diru irteeraren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

112-122

ZURIUNEAK

123 Alfabetiko

ERABILITAKO KONTU UNITATEA

Dagokion gako alfabetikoa jarriko da, kontu bankarioan erabilitako monetaren arabera:

Gakoa: E - Euroak.

Gakoa: D - Dibilak.

124	Numerikoa	<p>ALTA GAKOA</p> <p>Undoko gako hauetako bat jarriko da:</p> <p>Gakoa: 0. Deskribapena: Kontu zaharra.</p> <p>Gakoa: 1 Deskribapena: aitortzen den ekitaldian alta emandako kontua.</p> <p>Gakoa: 2. Deskribapena: aitortzen den ekitaldian deuseztatutako kontua.</p> <p>Gakoa: 3 Deskribapena: aitortzen den ekitaldian alta emandako eta deuseztatutako kontua.</p> <p>Gakoa: 4 Deskribapena: aitortzen den ekitaldian izaeraz aldatu den kontua, egoiliar batena izatera pasatu dena.</p> <p>Gakoa: 5 Deskribapena: aitortzen den ekitaldian izaeraz aldatu den kontua, ez-egoiliar batena izatera pasatu dena</p> <p>— Gakoa: 6.</p> <p>Deskribapena: finantza entitatearen bat-egite edo berregituratze sozietarioarengatik, aitortzen den ekitaldian alta emandako kontua.</p>
125	Alfabetikoa	<p>AITORTUAREN GAKOA</p> <p>Gako hauetako bat jarri behar da:</p> <p>Gakoa: N</p> <p>Deskribapena: Entitate finantzarioari IFZ jakinarazi ez dion titularra, aldi berean entitateak zerga Administrazioari zirkunstantzia hori jakinarazi diona 195 eredua erabilia. Eredu hori kreditu entitateei IFZ jakinarazi ez dien titularraren kontu eta eragiketak aitortzekoa da, eta apirilaren 22ko 378/2002 Foru Aginduz onartuta dago.</p> <p>Gakoa: T Deskribapena: Jabari osoaren titularra</p> <p>Gakoa: U Deskribapena: Usufruktuduna</p> <p>Gakoa: O. Jabetza soilaren titularra</p> <p>Gakoa: B. Bestelako onuraduna</p>
126-128	Numerikoa	<p>KONTUAREN TITULAR KOPURUA</p> <p>Aitortzen den urteko edozein unetan kontuaren titular izan direnen kopuru osoa.</p>

129	Numerikoa	<p>KONTU MOTA</p> <p>Gako hauetako bat jarriko da:</p> <p>Gakoa: 1. Deskribapena: Kontu korrontekak</p> <p>Gakoa: 2. Deskribapena: Aurrezki kontuak.</p> <p>Gakoa: 3. Deskribapena: Epekako ezarpenak.</p> <p>Gakoa: 4. Deskribapena: Kontu finantzarioak.</p> <p>Gakoa: 5. Deskribapena: Kreditu kontuak.</p> <p>Gakoa: 6. Deskribapena: Ez-ohiko kontratu finan-tzarioetan oinarritutako kontuak.</p>
130	Alfabetikoa	<p>KODE MOTAREN GAKOA</p> <p>Gako hauetako bat jarriko da, kontuaren identifikazioaren arabera:</p> <p>Gakoa: C.</p> <p>Deskribapena: Kontuaren identifikazioa bezeroaren kontu kodearen bidez (BKK). Identifikazio hori derrigorrezkoa izango da, aitortzaileak Espainiako Bankuko Entitateen Erregistroan izena emanda dauden entitateak direnean.</p> <p>Gakoa: O.</p> <p>Deskribapena: Bestelako identifikazioa.</p>
114-126	Numerikoa	<p>BEZEROAREN KONTU KODEA (BKK)</p> <p>Hauxe jarriko da:</p> <p>1. Kontua bezeroaren kontu kodearekin (BKK) identifikatzeko</p> <p>Honela banatuta dago egitura:</p> <ul style="list-style-type: none"> — Posizioak: 131-134. Deskribapena: Entitate kodea — Posizioak: 135-138. Deskribapena: Bulego kodea. — Posizioak: 139-140. Deskribapena: Kontrol digituak. — Posizioak: 141-150. Deskribapena: Kontu zenbakia. <p>2. Banku jaulkitzaileak ez badio aitortzaileari entitatearen koderik eman, entitateak definitu duen barne identifikazioa adieraziko da.</p>
131-150	Numerikoa	
151-162	Alfanumerikoa	<p>DIRUZKO ORDAINKETAK</p> <p>12 posizioko eremu alfanumerikoa</p> <p>Bakar-bakarrik aitortuak N, T, U edo B gakoa duenean (125 posizioa).</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p> <p>151 Zeinua: Eremu alfabetikoa. N jarri behar da errenta edo etekinaren zenbatekoa 0tik (zero) beherakoa denean. Beste edozein kasutan, eremu honen edukia tarte bat izango da.</p>

152-162 Zenbatekoa: 11 posizioko eremu numerikoa. Errenta edo etekinaren zenbatekoa jarri behar da eurotan (edo horren kontrabalioa, dibisatan dauden kontuak badira).

Lortutako errenta edo etekinak aitortu bat baino gehiago baditu, adierazi zein zenbateko egozten zaion bakoitzari bere partaidetza portzentajearen arabera.

Kontu bati lotutako ezarpen edota berriztapen bat baino gehiago daudenean, erregistro bakar batean edo jasotzaile kopurua adinako erregistrotan metatuko dira bai zeinu bereko etekinak eta bai atxikipenak.

Zenbateko honen barruan sartuko dira, era berean, mota guztietako finantza erakundeetako kontuekin lotutako sustapen komertzialetan sartutako baldintzak ez betetzeagatik jarritako penalizazioen kontzeptuan izan diren kapital higigarriaren etekin negatiboak ere. Etekin horiek erregistro desberdin batean jaso behar dira aitortu bakoitzeko

Zenbatekoak eurotan jarri behar dira. Zenbatekoari ez zaio jarriko inolako zeinurik (+/-), eta ez du izango hamartarren komarik

Eremu hau bitan banatzen da:

152-160. Zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

161-162. Zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

163-166

ZURIUNEAK

167-168 **Alfanumerikoa**

ORRI MOTA

«TB» balorea izango da beti.

168-180 **Alfanumerikoa**

ATXIKIPEN OINARRIA

12 posizioko eremu alfanumerikoa.

Bakar-bakarrik aitortuak N, T, U edo B gakoa duenean (125. posizioa).

Eremu hau bitan banatzen da:

169 zeinua: Eremu alfabetikoa. N jarri behar da kapital higikorren errenta edo etekinaren zenbatekoa Otik (zero) beherakoa denean; beste edozein kasutan, eremu horren edukia tarte bat izango da

170-180. Zenbatekoa: Atxikipenaren oinarria jarriko da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe.

Eremu hau bitan banatzen da:

170-178. Zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

179-180. Zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

181-190 **Numerikoa**

ATXIKIPENA

Benetan atxikitako zenbatekoa jarriko da

Bakar-bakarrik aitortuak N, T, B edo U gakoak duenean (125. posizioa).

Aitortu bat baino gehiago badira, partaidetzaren arabera benetan atxikitako zenbatekoa jarriko da haietako bakoitzean.

Zenbatekoak eurotan jarri behar dira. Zenbatekoari ez zaio jarriko inolako zeinurik (+/-), eta ez du izango hamartarren komarik.

Eremu hau bitan banatzen da:

181-188. Zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

189-190. Zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

191-200 **Numerikoa**

GAUZEN BIDEZKO ORDAINSARIAK (BALORAZIOA PFEZn)

Bakar-bakarrik aitortuak N, T, B edo U gakoak duenean (125. posizioa)

Gauzen bidezko ordainsariaren balorazioa jarri behar da. Aitortua PFEZren zergaduna bada, balorazioa izango da merkatuko balioa gehi kontura egindako sarrera, betiere azken hau errentaren aitortuari egotzi ez bazaio. Kontuari aitortu bat baino gehiago lotuta dagoenean, beren partaidetza portzentajearen arabera bakoitzari egotzi behar zaion ordainsaria eta, hala bada, konturako sarrera adieraziko dira.

Zenbatekoak eurotan jarri behar dira. Zenbatekoari ez zaio jarriko inolako zeinurik (+/-), eta ez du izango hamartarren komarik.

Eremu hau bitan banatzen da:

191-198. Zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira

199-200. Zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira

201-207

ZURIUNEAK

208-217 **Numerikoa**

KONTURAKO SARRERAREN OINARRIA

Bakar-bakarrik aitortuak N, T, B edo U gakoak duenean (125. posizioa).

Zenbatekoak eurotan jarri behar dira. Zenbatekoari ez zaio jarriko inolako zeinurik (+/-), eta ez du izango hamartarren komarik. Gauzen bidezko ordainsariengatik egin den konturako sarreraren oinarria jarriko da.

Eremu hau bitan banatzen da:

208-215. Zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

216-217. Zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

218-226 Numerikoa

KONTURAKO SARRERA

Bakar-bakarrik aitortuak N, T, B eta U gakoa duenean (125 posizioa

Ordaindutako gauza bidezko ordainsariengatik egindako konturako sarrera jarriko da

Aitortu bat baino gehiago badira, partaidetzaren arabera benetan atxikitako zenbatekoa jarriko da haietako bakoitzean.

Zenbatekoak eurotan jarri behar dira. Zenbatekoari ez zaio jarriko inolako zeinurik (+/-), eta ez du izango hamartarren komarik

Eremu hau bitan banatzen da:

218-224. Zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

225-226. Zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

227-243

ZURIUNEAK

244-248 Numerikoa

PARTAIDETZA PROTZENTAJEA ERERNTAN EDO ETEKINEAN

Bakar-bakarrik aitortuak N, T, U eta B gakoa duenean (125 posizioa)

Erregistroan aipatzen den aitortuak etekinean duen partaidetza portzentajea adiera behar da.

Eremu hau bitan banatuta dago

244-246. Portzentajearen zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

247-248. Portzentajearen zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira

249-256 Numerikoa

KONTUAREN IREKITZE DATA

Kontua 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera ireki edo itxi bada, zein egunetan ireki den jarriko da. Urtearen lau digituak jarriko dira, hilabetearen bi digituak (01etik 12ra) eta egunaren bi digituak (01etik 31ra) UUUUHHEE formatuaren arabera

Kontua ireki den urtea aitortzen den urtea ez denean ere bete behar da eremu hau.

257-271 Numerikoa

AZKEN HIRUHILEKOAREN BATEZ BESTEKO SALDOA

Hemen jarri behar da zein izan den azken hiruhilekoan kontuaren batez besteko saldoa, aitortuaren gakoa zeinahi dela ere

Eremu hau bitan banatuta dago:

257 Zeinua: eremu alfabetikoa. Jarri «N» kontuaren saldoa negatiboa denean. Beste edozein kasutan, eremu hau hutsune bat izango da

258-271 Zenbatekoa: 14 posizioko eremu numerikoa.

Kontuaren saldoa jarri behar da, koma hamartarrik gabe

Zenbatekoak eurotan jarri behar dira

Eremu hau bitan banatuta dago:

258-269. Saldoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroz beteko da

270-271. Saldoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroz beteko da.

272-286 Numerikoa

ABENDUAREN 31KO SALDOA

Abenduaren 31n kontuak duen saldoa jarri behar da, aitortuaren gakoa zeinahi dela ere.

Eremu hau bitan banatuta dago:

272 Zeinua: eremu alfabetikoa. Jarri «N» kontuaren saldoa negatiboa denean. Beste edozein kasutan, eremu hau hutsune bat izango da.

273-286 Zenbatekoa: 14 posizioko eremu numerikoa

Kontuaren saldoa jarri behar da, koma hamartarrik gabe.

«E» Bestelako finantza eragiketak.

Eremu hau bitan banatuta dago:

273-284. Saldoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroz beteko da.

285-286. Zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroz beteko da.

287-478 Alfamerikoa

KOMUNIKAZIOETARAKO HELBIDEA

Hemen jarri behar da kontuaren operatibak eragindako dokumentazioa bidaltzen den tokiaren helbidea edo, horren ezean, aitortuaren helbidea.

Eremu hau bitan banatuta dago:

287–291. Kale mota.

Kale motaren kode alfabetikoa jarri behar da, Estatistika Institutu Nazionalak (INE) onartutako kode normalizatuen arabera.

292–341. Kalearen izena.

Kalearen izen osoa jarriko da. Bide publikoaren izen luzea jarriko da. Izen osoa ez bada sartzen, ez jarri ez artikulurik, ez preposiziorik eta ez juntagailurik. Tituluak laburbilduta adieraziko dira (adibidez: KT = kondea). Gainerako kasuak erabilera orokorreko siglen arabera laburtuko dira.

342-344. Numerazio mota.

Numerazio mota adieraziko da (Baloreak: ZK.; KM.; Z.G., eta abar).

345-348. Etxe zenbakia

Etxe zenbakia edo puntu kilometrikoa adierazi behar da

349-351. Zenbakiaren kalifikatzailea

Zenbakiaren kalifikatzailea jarri behar da (baloreak: BIS; DUP; MOD; ANT, etab (metroak baldin eta zenbaki mota = KM bada.).

352-354. Blokea

Blokea jarriko da (zenbakia edo letrak).

355-357. Ataria

Ataria jarriko da (zenbakia edo letrak).

358-360. Eskailera.

Eskailera jarriko da (zenbakia edo letrak).

361-363. Solairua edo oina.

Solairua edo oina jarriko da (zenbakia edo letrak).

364-366. Atea.

Atea jarriko da (zenbakia edo letrak).

367-406. Osagarria.

Helbidearen datu osagarriak. Baloreak: Literal libre. (Adibidez: «..... Etxegunea», «..... Merkataritza Gunea», «..... Lokala», «.....ko merkaturia», «..... saltokia», «..... eraikina», etab...

407-436. Herria edo hiria.

Herria, hiria, eta abarren izena jarriko da, udalerriarekin bat ez datorrenean.

437-466. Udalerria:

Udallerriaren izena jarriko da.

467-471. Udalerraren kodea.

Udallerriaren Kodea jarri behar da, Estatistika Institutu Nazionalak (INE) onartutako kode normalizatuen arabera

472-473. Probintzia kodea

Probintziaren kodea jarri behar da

Probintziari edo, hala badagokio, hiri autonomoari dagozkion bi digitu numerikoak jarri behar dira, zerrenda honen arabera:

ARABA	01	LEON	24
ALBACETE	02	LLEIDA	25
ALACANT	03	LUGO	27
ALMERIA	04	MADRIL	28
ASTURIAS	33	MALAGA	29
AVILA	05	MELILLA	52
BADAJOS	06	MURTZIA	30
BARTZELONA	08	NAFARROA	31
BURGOS	09	OURENSE	32
CACERES	10	PALENTZIA	34
CADIZ	11	PALMAS, LAS	35
KANTABRIA	39	PONTEVEDRA	36
CASTELLO	12	ERRIOXA	26
CEUTA	51	SALAMANCA	37
CIUDAD REAL	13	S.C.TENERIFE	38
KORDOBA	14	SEGOVIA	40
CORUÑA, A	15	SEVILLA	41
CUENCA	16	SORIA	42
GIRONA	17	TARRAGONA	43

GRANADA	18	TERUEL	44
GUADALAJARA	19	TOLEDO	45
GIPUZKOA	20	VALENTZIA	46
HUELVA	21	VALLADOLID	47
HUESCA	22	BIZKAIA	48
BALEARRAK	07	ZAMORA	49
JAEN	23	ZARAGOZA	50

Helbidea atzerrian badago 99 gakoa jarriko da.»

474-478. Posta kodea.

Aitortutako helbidearen posta kodea jarri behar da.

479 Alfabetikoa

USTEZ ABANDONATUTA DAUDEN KONTUAK

Eremu honetan «X» bat jarriko da, azaroaren 3ko 33/2003 Legean eta hura gara tze ko araudian xedatutakoaren arabera, aitortuen identifikazioarekin arazoak egoteagatik ustez abandonatuta dauden kontuak identifikatzeko.»

480-500

ZURIUNEAK

- * Edukirik ez duten eremu numeriko guztiak zeroz beteko dira.
- * Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak zurienez beteko dira
- * Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldeetik zeroz beteko dira.
- * Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak ezkerraldeetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldean zurienez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

196 EREDUA

C. 2.Motako erregistroa

BAIMENDUAREN ERREGISTROA

1	Numerikoa	ERREGISTRO MOTA «2» konstantea
2-4	Numerikoa	AITORPEN EREDUA «196» konstantea.
5-8	Numerikoa	EKITALDIA 1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da.
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IFZ 1.motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da.
18-26	Alfanumerikoa	BAIMENDUAREN IFZ Baimenduak Espainian emandako IFZ badu, honela jarri behar da: Pertsona fisikoa bada, aitortuaren IFZ jarri behar da Adingabeak edo ezgaituak identifikatzeko, adingabearen edo ezgaituaren datuak jarriko dira, identifikazio fiskaleko zenbakia barne, baita legezko ordezkariarena ere. Identifikazio fiskaleko zenbakia aitortzen den urteko edozein momentutan titular, baimendun edo onuradun izan diren pertsona edo entitateena izango da. Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira Espainian emandako identifikazio fiskaleko zenbakiekin bakarrik bete behar da.
27-35	Alfanumerikoa	LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ Eremuen azalpena: Baimenduaren deiturak eta izena. Pertsona fisikoak badira, lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa jarriko dira, ordena horretan nahitaez. Baimendua adingabea edo ezgaitua bada, eremu honetan adingabearen edo ezgaituaren deiturak eta izena jarriko dira

Aitortzen den urteko edoizen unetan baimenduak izan diren pertsonen izen-deiturak jarri behar dira.

76-122

ZURIUNEAK

123 Alfabetikoa

ERABILITAKO KONTU UNITATEA

Dagokion gako alfabetikoa jarriko da, kontu bankarioan erabilitako monetaren arabera:

Gakoa: E – Euroak.

Gakoa: D – Dibisak.

124 Numerikoa

ALTA GAKOA

Ondoko gako hauetako bat jarriko da:

Gakoa: 0. Deskribapena: Kontu zaharra

Gakoa: 1. Deskribapena: aitortzen den ekitaldian alta emandako kontua.

Gakoa: 2. Deskribapena: aitortzen den ekitaldian deuseztatutako kontua

Gakoa: 3. Deskribapena: aitortzen den ekitaldian alta emandako eta deuseztatutako kontua

Gakoa: 6. Deskribapena: finantza entitatearen bat-egite edo berregituratze sozietarioarengatik, aitortzen den ekitaldian alta emandako kontua.

125 Alfabetikoa

Aiortuaren gakoa

Gako hau jarri behar da:

Gakoa: A. Baimendua.

126-128

ZURIUNEAK

129 Numerikoa

KONTU MOTA

Gako hauetako bat jarriko da

Gakoa: 1. Deskribapena: Kontu korronteak.

Gakoa: 2. Deskribapena: Aurrezki kontuak.

Gakoa: 3. Deskribapena: Erpekako ezarpenak.

Gakoa: 4. Deskribapena: Kontu finantzarioak.

Gakoa: 5. Deskribapena: Kreditu kontuak

Gakoa: 6. Deskribapena: Ez-ohiko kontratu finantzarioetan oinarritutako kontuak

130	Alfabetikoa	<p>KODE MOTAREN GAKOA</p> <p>Gako hauetako bat jarriko da, kontuaren identifikazioaren arabera</p> <p>Gakoa: C. Deskribapena: Kontuaren identifikazioa bezeroaren kontu kodearen bidez (BKK). Identifikazio hori derrigorrezkoa izango da, aitortzaileak Espainiako Bankuko Entitateen Erregistroan izena emanda dauden entitateak direnean.</p> <p>Gakoa: O. Deskribapena: Bestelako identifikazioa.</p>
131-150	Numerikoa	<p>BEZEROAREN KONTU KODEA (BKK)</p> <p>Hauxe jarriko da:</p> <p>1. Kontua bezeroaren kontu kodearekin (BKK) identifikatzeko.</p> <p>Honela banatuta dago egitura:</p> <p>Posizioak: 131-134. Deskribapena: Entitate kodea</p> <p>Posizioak: 135-138. Deskribapena: Bulego kodea</p> <p>Posizioak: 139-140. Deskribapena: Kontrol digituak.</p> <p>Posizioak: 141-150. Deskribapena: Kontu zenbakia</p> <p>2. Banku jaulkitzaileak ez badio aitortzaileari entitatearen koderik eman, entitateak definitu duen barne identifikazioa adieraziko da.</p>
151-158	Numerikoa	<p>BAIMENA EMAN DEN DATA</p> <p>Adierazi zein datatik aurrera eman zaion aitortzaileari kontua erabiltzeko baimena. Urtearen lau digituak jarriko dira, hilabetearen bi digituak (01etik 12ra) eta egunaren bi digituak (01etik 31ra) UUUUHHEE formatoaren arabera</p> <p>Kontua erabili edo xedatzeko baimena –baimenaren ezeztapena edo deuseztapena barne– aitortzen den urtean jakinarazi edo gertatu badira, dataren bi eremuak beteko dira</p> <p>Aitortzen den urtean kontu batek hainbat baimen edo ezeztapen baditu baimendu berberaren inguruan, beteko diren erregistroak baimen bakoitzak urtean izan dituen iraupen tartek adinakoak izango dira. Aurreko paragrafoetan esandakoaren arabera beteko dira erregistro bakoitzean dataren eremuak.</p>

159-166	Numerikoa	<p>BAIMENA KENDU DEN DATA</p> <p>Adierazi zein datatik aurrera kendu zaion aitortzaileari kontua rabiltzeko baimena edo, hala balitz, noiztik kantzelatu den kontua. Urtearen lau digituak jarriko dira, hilabetearen bi digituak (01etik 12ra) eta egunaren bi digituak (01etik 31ra) UUUUHHEE formatoaren arabera.</p> <p>Kontua erabili edo xedatzeko baimena –baimenaren ezeztapena edo deuseztapena barne– aitortzen den urtean jakinarazi edo gertatu badira, dataren bi eremuak beteko dira.</p> <p>Aitortzen den urtean kontu batek hainbat baimen edo ezeztapen baditu baimendu berberaren inguruan, beteko diren erregistroak baimen bakoitzak urtean izan dituen iraupen tartek adinakoak izango dira. Aurreko paragrafoetan esandakoaren arabera beteko dira erregistro bakoitzean dataren eremuak.</p>
166-168	Alfabetikoa	<p>ORRI MOTA</p> <p>«AT» balorea izango da beti</p>
169-432		<p>ZURIUNEA</p>
433-452	Alfanumerikoa	<p>EGOITZA HERRIALDEKO IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA</p> <p>Kontuetan baimendutako ez-egoiliarren kasuan.</p> <p>Egoitzako herrialde edo lurraldean baimenduari emandako identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da.</p>
453-460	Numerikoa	<p>JAIOTEGUNA</p> <p>Ez-egoiliar baimenduen kasuan.</p> <p>Urtearen lau digituak jarriko dira, hilabetearen bi digituak (01etik 12ra) eta egunaren bi digituak (01etik 31ra) UUUUHHEE formatoaren arabera</p>
461-497	Alfanumerikoa	<p>JAIOTERRIA</p> <p>Kontuetan baimendutako ez-egoiliarren kasuan</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p> <p>461-495. Hiria: 35 posiziokoa. Jaioterria jarri behar da, eta beharrezkoa izanez gero, probintzia, erregioa edo departamentua. Izenak hogeita hamabost karaktere baino gehiago baditu, lehen hogeita hamabostak jarriko dira, artikulurik eta preposiziorik gabe.</p>

496-497. Herrialde kodea: 2 posiziokoa. Hemen jarri behar da baimenduaren jaioterriaren herrialde edo lurralde kodea. Horretarako, erabili behar dira 2016ko abenduaren 14ko 567/2016 Foru Aginduak, «Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak.

Ez-egoiliarren kontuen aitorten informatiboa» izeneko 291 eredua onartu, eta harren aurkezpen moduak eta herrialde eta lurralde kodeen zerrenda ezartzen dituenak, III. eranskinean jasotako herrialde edo lurralde kodeak.

498-199 Numerikoa

BAIMENDUAREN EGOITZA FISKALEKO HERRIALDE EDO LURRALDEA

Kontuetan baimendutako ez-egoiliarren kasuan

Baimenduaren egoitza fiskaleko herrialde edo lurraldearen kodea jarri behar da.

Hemen jarri behar da baimenduaren zerga egoitzaren herrialde edo lurralde kodea. Horretarako, erabili behar dira 2016ko abenduaren 14ko 567/2016 Foru Aginduak, «Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Ez-egoiliarren kontuen aitorten informatiboa» izeneko 291 eredua onartu, eta harren aurkezpen moduak eta herrialde eta lurralde kodeen zerrenda ezartzen dituenak, III. eranskinean jasotako herrialde edo lurralde kodeak

500 Alfabetiko

USTEZ ABANDONATUTA DAUDEN KONTUAK

Eremu honetan «X» bat jarriko da, azaroaren 3ko 33/2003 Legean eta hura gara tze ko araudian xedatutakoaren arabera, aitortuen identifikazioarekin arazoak egoteagatik ustez abandonatuta dauden kontuak identifikatzeko.»

* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete behar dira.

* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak bete gabe utzi behar dira

* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldeetik zeroz beteko dira.

* Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldeetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldeetik zuriuneak utziko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.